



---

# PIRINIOETAKO

## II. MIKROIPUIN

# LEHIAKETA

---

ANTOLATZAILEAK:  
PIRINIOETAKO EUSKARA ZERBITZUAK



# AURKIBIDEA

## Irabazleak

### Orokorra

#### **1. saria**

*Biluztea*, Lierni Rekondo Villaron ..... 1

#### **2. saria**

*Muga*, MariJoxe Azurtza Sorrondegi ..... 2

### Euskara ikasleak

#### **1. saria**

*Gureak egin du*, Agoizko B2ko ikasleak ..... 3

#### **2. saria**

*Birus berri bat*, Agoizko C1eko ikasleak ..... 4

## Aurkeztutakoak

*Apurrak*, Oihane Zuberoa Garmendia Glaria ..... 5

*Azken bazkaria*, Mikel Albisu Iriarte ..... 6

*Biolin bat zelatan*, Eneko Barberena Mondragon ..... 7

*Emozio galduak*, M<sup>a</sup> Lourdes Aparicio Agreda ..... 8

*Haurra non zagok?*, Adolfo Bornaetxea Rodriguez ..... 9

*Eskolako ebaluazio saioan*, Aitziber Ganuza Quel ..... 10

*Hil!*, Patxi Gaztelumendi ..... 11

*Beti berdin*, Jone Osa Basurco ..... 12

*Nor edo zer gara?*, Iosu Osta Jimenez ..... 13

*Oporrak!!*, Arantxa Gorri Ederra ..... 14

*Heldu artean*, Arantxa Txintxurreta Agirre ..... 15

*Aldaketa nahiak*, Eneko Villegas Amezketa ..... 16

*Iheska*, Xanti Begiristain Madotz ..... 17

*Zer ote?*, Itziar Mitxelena Gamio ..... 18

*Berriro kea*, Ainhoa Elizalde Ojer ..... 19

*Zaletasuna baino askoz gehiago?*, Cristina Pérez Recalde ..... 20

*Atabea*, Patxi Iriarte Uztarrotz ..... 21

*Egun on*, Lohizune Amatria Zabaltza ..... 22

*Ametsetako mundua*, Oskia Ollakarizketa Iriarte ..... 23

*Desengainua*, Asier Iparragirre ..... 24

*Amona maitia*, Juan Zugasti Munarriz ..... 25

*Urtaro berria*, Agoizko B1eko ikasleak ..... 26

*AEKbirusa*, Garraldako B2ko ikasleak ..... 27

*Bizi koloretsua*, Garraldako A2ko ikasleak ..... 28

*Lertxunak*, Urrozko eta Agoizko A2ko ikasleak ..... 29

*Lamilosena putzua*, Zaraitzuko A2ko ikasleak ..... 30

*Mikroipuina*, Aurizberriko A2ko ikasleak ..... 31

*Zu zeu izan!!*, Urroztarra ..... 32

## Epaimahaia

Josu Jimenez Maia

Xabier Diaz Esarte

Dabid Lalana Salbotx

# Biluztea

Atea krisketaz itxi dut sar ez zaitezen, eta ispiluaren bestaldean zu. Lepoa laztandu dut zure behatzen arrastoetan pausatuz, bat, bi...hamar. Arnasestuka hasi naiz bat batean, inertziaz edo. Kamisoia erantzi dut eta azala oilo-larrutu zait sabelean marraztu didazun ubeldura ukitzean. Ezustean erantzi dizkidazu kuleroak, indarrez, nik ez uztea erabaki dudalako. Erresistentzia desiraren sinonimoa denaren usteaz baliatu izan zara beti, nire borondatearen kontra nigan hustea justifikatzeko. Larrutan egin duzu, bai duzu diot, zu baitzara gozatu duen bakarra. Eskumuturrak helduta, mugi ez nendin, zure jabetzakoa nintzela ahaztu ez nezan. Mindu nauzu, ezkondu ginenetik zurea izan baita plazera, eta nirea ba zera... biluztea.

Lierni Rekondo Villarón

# Muga

Birramonak landatutako limoiondotik haratago joatea debekatua nuen. Hura zen bi herrialdeen arteko muga, eta mugaz bestaldean zegoena etsaia zen. Uda garaian, muga-lerroan eseri eta amesteari ekiten nion, bestaldean zer zitekeen igarri nahian. Bestaldean, baina, zelai hutsak zeuden, eta etxe galdu bat, gurean bezala. Hango ardi pare bati txistu egiten nion lagun etor zekizkidan, baina, harri koskorren atzetik, norbaitek txistu egiten zien, atzera. Ez nuen dei horren egilea sekula begiz ikusi eta ni bezalako haurra zela amesten nuen, eta elkarrekin jolasten genuela. Eta muga hura helduen irudimenak behartutakoa zela. Orduan ulertu nuen haurren irudimenak batzen zuena helduenak bereizten zuela.

*Marijoke Azurtea Sorrondegi*

# Gureak egin du

Arratsaldeko lau eta erdietan, Aitorrek whatsApp baten bitartez jakinarazi digu ez zuela AEK-ko eskoletara etortzerik Koronabirusak jota baitago. Hori dela eta, irakasleak proposatu dio, gaurko orduak ez galtzeko, bideo-konferentziaren bitartez egiteko. Atzizkiak lantzen ari ginela, Aitorrek, pantailaren beste aldean, doministiku egin du eta bat-batean gauza arraroak gertatzen hasi dira: bere ahotsa arraro entzuten genuen, ikonoak dantzan hasi dira, kurtsorea independentzia aldarrikatuta-edo, bakarrik mugitzen hasi da eta pantailan kolore distiratsuak agertzen ziren tarteka. Panda antibirusa ez da nahikoa izan eta konturatu gara koronabirusak ordenagailuei ere kutsa diezaiekeela. Gureak egin du!

Agoiako euskaltegia  
B2ko ikasleak

## Birus berri bat gure jendartean

Adi, birus larri baten aurrean gaude!  
Euskal Herrian zepa berri bat sortu da, pozik  
egoteko modukoa, gainera. Irrintzi bat botatzeko  
gogoa baduzu, txapela buruan eta Gara eskuan  
dituzula eta tabernetan txakolina eskatzeko grina  
besterik ez baduzu, ez larritu!  
Zoriontzeko sintomak dituzu!  
Euskarabirusak harrapatu zaitu.  
Utz itzazu alde batean atzizkiak, subjuntiboa,  
ahalera, ergatiboa eta AEK!  
Atera zaituz kalera eta kutsa ezazu ahalik eta jende  
gehien!  
Euskarabirusak euskaldun bihurtuko zaitu!  
Aprobetxatu!

*Agonizko euskaltegia  
C1eko ikasleak*

# Apurrak

"-Bai goxoak aitatzik prestatzen zizkigun  
ogi-apurrak, ezta, amatxi?

-Bai? Nik ez ditut, ba, sekula dastatu."

Eta hala, apurka-apurka, lapur bat instalatu zen  
amatxirenean eta, apurka-apurka, (l)apurtzen joan  
zen apurrezina zirudien amatxiren memoria apurra.

*Dihane Zuberoa Garmendia Glaría*

# Azken bazkaria

Ohi ez bezala itxita aurkitu dut etxetik hurbil dagoen behi-korta handiko atea.

Bertan bi zerri eder ere dituzte. Ohitura hartu dut organikoa poltsa batean bereizi eta haiei eramatekoa. Oraingoan, barazki hondakinekin bi oilasko hanka hezur ere badituzte.

Kontu handiz zabaldu dut atea. Ilunpean lau gizon nabarmendu ditut. Isilik.

-Kaixo, Jon!

Ezagutu dut ahotsa.

-Kaixo, Xabier!

Begiak iluntasunera ohitu arau ezagutu dut ere bere semea. Beste biak ezezagunak egin zaizkit.

-Zer, bilera? -ausartu naiz.

-Ez -erantzun dit Xabierrek-, zerri-hiltzeko zain gaude.

Denok geratu gara eskuan daramadan poltsari begira.

-Azken bazkaria? -galdetu dut, xaloki.

-Oiloei -eman dio agindua Xabierrek semeari.

Mikel Albisu Iriarte



# Biolin bat zelatan

Kirrinka lazgarriak bete du kale kantoia eta oihartzuna arduratu izua barreiatzeaz. Biolina zelatan izan dudan tarte luzean, bere arku tentez, bere xirribika trostaz, jabetu naiz odol-gose dela. Eliza atzean utzi eta jarraika soinua, luthier-kume malapartatua.

“Zer egin dizut zuri ordain hau jasotzeko. Utzi bakean! Otoi!”. Arrabitak irribarre tristea egin, arkua diapasoian paratu eta melodia tristea jotzeari ekin dio.

Beste hildako bat euripean. Nota galduak kea bailiran zerurantz, gorriz tindatutako altzairuzko lau hari, pizzicatoa zorigaiztoari, vibratoa itzali den etorkizunari, hozka bat gehiago oholari.

Biolinak, tremolo egin du, prestissimo ospa, zurezko ametsak lizundu egiten direnez gero ziega hezeetan.

*Eneko Barberena Mondragon*

# Emozio galduak

Behinola, Jon izeneko mendizale hasiberria, Pirinioetako ibilaldia hasi eta lehen orduak nekatuta bezain pozik eman zituen, baina bat-batean... noraezean aurkitu zen.

Laino artean, gaua iristear eta mendi beheara zihoala ahots bat entzun zuen:

-Laguntzarik behar?

Ondoren, zurrumbilo galanta bere buruan eta hotzikarak gorputz osoan sentitu zituen.

Gogoko abesti baten notak txistukatzen hasi eta hauen oihartzuna entzutean isildu zen. Orduan, isiltasuna eta bibrazioek eraginda, berarentzat ezezagunak ziren mota guztietako emozioak hasi zen sentitzen.

Kanpokoak eragindako barneko sentimendu ulertu ezinik, korrikari eman zion.

Etxola batera iritsi eta zintzilikaturik zegoen ispilu herdoildu batean bere arima ikusi zuen begietan islaturik.

*Ma Lourdes Aparicio Agreda*

# Haurra non zagok?

Ez dun haurra, hamaika urte dizkin!  
Hamaika asko izango duk baina ez aski!  
Gora jo dun, Arlas aldera...  
Bakarrik?  
Hark bazekin, bere motzean...  
Handik hartza egoten duk, ordea...  
Eta zer?  
Nola utzi diok?  
Honezkero ez ohi dik baimenik eskatzen... ilundu  
aurretik etorri egingen dun...  
Aizak, hemen ez duk lorik egin, abisu eman beharra  
zagok!  
Lasai, joango naun bila...  
Nora??  
Muga aldera, eta beste aldean ere galdetu dinat...  
Inork ez omen zekin fitsik, ez zagon inon bere  
arrastorik.  
Joan hadi berriz ere, ez zagok horrela  
desagertzerik.  
Aurkitu dinat bere arrastoa!  
Kartel honetan jartzen dik: Haurra salgai...  
Ez, mesedez!!

*Adolfo Bornaetxea Rodriguez*

## Eskolako ebaluazio saioan

-Etxean desastre hutsak; fundamentu gutxikoak. Gurasoek nahi duen guztia egiten uzten diote- plastikako irakasleak. Gero ikasleak errespetu faltak ditu: etengabe besteak mespretxatzen eta umiliatzen dabil.

-Ahalegin minimokoa- ingelesekoak.

-Nire aburuz, autoexijentzia maila murrizta du eta perfekzionismoz hornitu behar duela deritzot- gaztelaniakoak. Komunikatzeko estrategia falta argiak ditu.

-Pentsatu gabe erantzuten du, ez du inoiz egindakoa onartzen eta bere euskara maila benetan baxua da- musikakoak. Umetxo bat dirudi. Orduan tutoreak:

-Aizue, ze iruditzen norbere buruaren inguruan hitz egiteari utzi eta ikasleari buruz hasiko bagina?

-“Si ni ya” ari nintzen ikasleari buruz- musikako umetxoak.

*Aitziber Ganuza Quel*

# Hi!

Hiru eskena eta sekuentzia eta plano bana, film labur baterako

*(lehen eskena)*

Baserri aurrean bi anai -bikiak- soloan lanean; atzean idi pareta -beste bi anai- landa batean.

Ostean,

*(bigarren eskena)*

Kanpandorretik hileta kanpai hotsa entzuten da.

*(hirugarren eskena)*

Plazako zuhaitzean eskela bat.

*(azken sekuentzia)*

Ondoko herrian goiz arrunta da.

Anaietako bat etorri da herrira, eta taberna aurrean dago Luzio, eta galdetzen dio ondoko herrikoari, hau ikustean:

*-Hi! hildakoa nor izan huan, hi ala hire anaia?*

*(ikustekoa, geratu zitzaion harridura aurpegia)*

*(azken plano)*

Idi bakarra landan.

Patxi Gaztelumendi

# Beti berdin

-Aio neskak. Nekatuta nago eta etxera noa.  
Ondo-ondo pasa! Bihar arte!

-Agur Naroa! Iristean gogoratu abisatzeaz.

Azkar-azkar noa, nire pausuak ere kontrolatzen ez ditudala.

Atzera begiratu dut. Zer-nolako iluntasuna. Ez dator inor... Ufa!

Baina horrek ere ez nau lasaitzen.

Giltzak eskuan, beste eskua poltsikoan, badaezpada mugikorra ateratzeko prest.

Norbait dator nire bide beretik. Berehala gurutzatuko gara... Mugikorra atera eta norbaitekin hitz egiten nabilen itxura egin dut.

Listua irentsi dut. Ez nau begiratu. Eskerrak!

Minutu bat baino ez zait falta etxera iristeko.

Korrika hasi naiz.

Ezin atariko giltza sarrailan sartu, dardarka nago.

Azkenik, barruan. Hau bai hau lasaitasuna.

*Jone Osa Basurco*

# Nor edo zer gara?

Ikasleak irakasleari, nor zen jakiteko egin behar zuenaz, galdetu zion. Irakasleak, erantzuna ezinezkoa zela, erantzun zion, galdera egokia ez zelako. Eta ipuintxo bat kontatzeari eman zion: “Ur ttantta batek Itsasoari nor zen galdetu zion eta Itsasoak, zer zaren? zu ni zara eta ni zu, ura besterik ez”, erantzun zion.

Ikasleak ikasgaia ulertu zuen eta handik aurrera, zer zen bere buruari galdetu zion.

Oraindik erantzuna bilatzen jarraitzen du?

*Idsu Osta Jimenez*

# Oporrak!!

Ikaragarri gustatzen zait heldu arte geratzen diren bihurguneak zenbatzea: hiru, bi, bat... Izaba!

Bero egiten du eta Belaguako poza batera joango gara; ez dakit burua sartzen utziko didaten, ura oso hotza dagoela esaten didate... Ea zapabururen bat harrapatzen dudan!

Migak oso gustuko ditudanez baietz, lasai egoteko, jango ditudala esaten didate, ardorik ez, noski!

Arratsaldean, harriz idatzitako Idoia irakurtzera eraman naute, kontuz ibiltzeko esanez denbora osoan... ze astunak!

Herriko frontoian lagunekin elkartu gara, ze ongi pasatzen dugun!

Lehenengo elurra zapaltzea, esnatu eta Ezkaurre elurtua... zirrargarria!

Aurtengo neguan ez dakit, laurogei urte ditut eta azkeneko oporraldia izango da akaso...

*Aranza Gorriiz Ederra*



# Heldu artean

Etiketarik gabeko posta-pakete bat heldu zen herrira. Kolpatuta eta urratuta zegoen. Irin-kutxa baten tamainakoa zen, eta alderik alde nekez irakur zitekeen hitz bat zuen idatzita. Inorentzat ez zenez guztiontzat zelako, herriko plazan bildu ziren herritarrak, kutxarekin zer egin deliberatzeko: zabalduko ez zuten arren, konpontzea erabaki zuten, noizbait norbaitek jasoko zuelakoan.

Erizainak urratuak tiritaz konpontzea proposatu zuen; errementariak, soldatzea; arotzak, iltzatuz konpondu nahi zituen; jostunak, josiz. Baina alkatea aurreratu, eta zinta amerikarrez bildu zuen paketea, sendo-sendo gera zedin.

Haurrari kosta egin zitzaion jendartean bide egitea. Aurre-aurrera iritsi zenean, berak erraz irakurri zuen paketeak zioena: "GEROA". Ikusitakoak ikusita, negarretan urtu zen.

*Arantza Txintxurreta Agirre*

# Aldaketa nahiak

Uda iristear zen. Egunak gauari irabazten hazia zitzaion aspaldi. Bere baitan pentsatzen zebilen, hausnartzen, zer dela eta zegoen egoera horretan, zer geratu zitzaion egiteke, zein gehiegikeria eginak zituen.

Bat-batean, buru barneko iratzargailua. Esnatu eta ohartu zen martxoa hasieran zela.

-Oraindik garaiz nabil gauzak egiteko, aldatu beharra daukat.

Eguneroko lema bera estatua gaixoa. Ohartu gabe jarraitzen du aldaketa horiek ez direla bere esku.

*Eneko villegas Amezketeta*

# Iheska

Europak ez zituen onartu nahi Afrikako eta beste hainbat lekutako errefuxiatuak eta iheslariak.

-Zoazte hemendik, lapurrak eta gaizkileak!

Orain, Europan, koronabirusaren pandemiaren izua dabil. Mendebaldeko zuriak beren larrua salbatu nahi dute, eta, horretarako, Afrikara joan nahi, hedabideak mutu baitaude kontinente beltzari buruz; ematen du han ez dagoela inolako izurrite eta arazorik.

Europako zuriak -gehienak-, izu-laborriak bultzatuta, masiboki abiatu dira Afrikarantz, nork bere burua salbatzera, baina itsasertzera iristean, horratx zer topatu duten: debekuak, tiroak, hesi arantzadunak, militarrek, poliziak, kontzentrazio-esparru antzekoak, gosea, bero ikaragarriak eta abar.

-Mesedez, utzi sartzen, utzi aske! Ez gara gaizkileak, ez gara lapurrak! Pertsonak gara!

*Panti Begiristain Madote*

# Zer ote?

Beti pentsatu izan duzu denera ohitzen zarela, garela. Denean laketzeko abilezia duzula, pertsonok gaitasun hori badugula. Ortzi semearekin ere maiz izan duzu solasgai: indarkeria matxistaren biktimen zerrenda amaigabea, bankuko eskalea, itsasoan gure begien aitzinean pilatzen diren hilotzak, gure Amalurraren aurkako eraso etengabeak... Hori dena, eta gehiago, gure eguneroko errealitatearen parte bihurtzen duzu, duzue. Dugu.

Etxeko itxialdiko enegarren elkarrizketan, Ortzik, halako batean, ahoa zabaldu eta...

-Ama, gure abilezia edo gure baldartasunaren seinale ote?

*Itziar Mitxelena Gamio*

# Berriro kea

«Berriro kea», pentsatu du Loredik gora begira. Erronkaribarko zerua ke-laino lauso batez estaltzen hasi da, emeki-emeki bortuan sartu eta ibarrean behera doana. Lorediri barrenak nahasten zaizkio zerua horrela ikusten duen aldiro.

-Berriro Iparraldeko abeltzainak larreei su ematen, *kaguenlaputa!* -erran du Aitorrek amorraturik borda gaineko zerua ikustean. - Egunen batean pinudiren batek su hartu eta zoritxarra izanen da gurean!  
INFERNUKO SUTAN KISKAL DAITEZELA!

Aitaren madarikazioak dardarka utzi du Lore di. Ez baitaki “*déjà vu*” horietara kondenatuta dagoela, 1527. urteko Erronkariko neska baten ondorengoa baita, Pirinioko ibarretako “Sorgin ehizan” erretako emakume batena, eta kea zeruan ikusten duen aldiro barrenak nahasiko zaizkiola.

Ainhoa Elizalde Ojer

## Zaletasuna baino askoz gehiago

Marlene Dietrich

Zerotik hasiko ginela. Tabula rasa. Eta abenturari ekin bezain pronto, edozein gauzari aurre egiteko kapaz ginela egiaztatuko genuela. Nire kolkorako: «Zoaz infernura, Zumosol». Behartuta, abentura biraoka eta arnasestuka hasi nuen.

Bizitzak baditu bere argi-ilunak; izan ere, orduko hartan zeharo etsita nengoen. Depresioa, XXI. mendeko epidemia. Tirriki-tarraka. Harrigarririo, mendietan gora egin ahala torturatzen ninduten gaitzek pisua galtzen joan ziren. Nire burua probatzea, bai eta natura eta laguntasunaren kemena ezagutzea ere, behar-beharrezkoa nuen inflexio-punturako osagaiak gertatu zitzaizkidan. Poliki-poliki, zeru beltzak eguzkiari leku egin zion. Mendizaletasuna nire salbamendu-jaka izan zela esan genezake. Esker mila, Pirinioetako gailurrak. Maite(ko) zaituztet.

*Cristina Pérez Recalde*

# Atabea

Oilarrak esnatu ta ogi-zopak gosaltzen ditut egunero. Lanari ekin aurretik etxe atarian esertzen naiz trankoan, egonaren giroan. Negu betean gaude ta hostoak eroriak dira, bihotzaren taupadak moteltzen ta gogoa lasaitzen zaigu. Udaberrian, bedatsean urtero legez odola biziko zaigu, trikuari bezala.

*Patxi Iriarte uztarrote*

# Egun on

Egunero bezala, iratzargailua bi aldiz atzeratu du; baina ohikoan ez bezala lokartu da alarmen arteko bost minutuko tartean. Goizeko seiak dira.

Komunean hasi da esnatzen. Gaur lan gehiago izanen du, hala agindu dio gorritutako komuneko paperak. Ura irakiten jarri, gauean garbigailuak garbitu duen arropa zintzilikatu, lekak eltzean sartu eta gosaltzeko eseri da. Kafea eta ogi txigortua ez daude hain onak gaur. Bere sabelaldea baino ez du nabaritzen. Zazpiak hamar gutxi.

Bere buruari gaizki egoteko baimenik eman gabe, ibuprofenoa hartu du lanera joateko. Inork ez du ezer nabarituko. Eta hilabete barru, berriro gertatuko da.

*Lohizune Amatria zabaltza*



# Ametsetako mundua

Ama-alabak ikus zitzakeen ametsean, itsaslabarretik urrutian eroritako harresiei begira, elkarri besarkatuta eta mazeletatik behera zorion malkoak zerizkiela. Itsasoaren beste aldean, inoiz baino egiazkoago ageri zen etorkizuna beren parean. Mugagabea.

Amesteko ez zegoen etxegaina bezalakorik. Baina, zenbat eta gorago igo, orduan eta handiagoa izaten da ondorengo kolpea. Bazekien. Bertan etzanda harrapatu zuen gauak. Izar bakanen argia, iluntasunean, ez zen beherako bidea argitzeko aski; onena, ametsetan segitzea. Bere buruari zin egin zion ez zela teilatutik eroriko, ez bederen gau hartan, ametsak zutik jarrai zezan harresiak erori bitartean.

Ez zekien, ordea, amestea baino zerbait gehiago behar dela harresiak eror daitezen.

*Oskia Ollakarizketa Iriarte*

# Desengainua

Zeharo nahigabetua da, erabat atsekabetua... Duela aste batzuk, irakurtzen ari zen liburuko atal bakoitzaren amaieran, hainbat esaldi suspertzaile irakurri zituen, zeintzuek ongi sentiarazi zuten eta animoa indartu zioten. “Atal honetan, honela nahiz horrela jokatzeko ikasi dugu. Atal honetan, hau eta beste ikasi dugu. Atal honetan...” Handik aste batzuetara, liburuan azaltzen eta deskribatzen zen egoera batean murgildurik ikusi zuen bere burua, eta, hala izanagatik ere, ez zuen asmatu liburuaren esana betetzen, eta desengainaturik sentitu zen, goibel eta burumakur, arranguraturik... Izan ere, liburuak dagoeneko ikasia zuela adierazia zion.

*Asier Iparragirre*

# Amona maitia

Nire aitona gerran hil zen.

Amona alarguna, hiru seme-alabekin, etxeko lanak, baratza, animaliak ... egunero lan ta lan. Amona euskalduna zen arren, bere etxeko hizkuntza ez zien seme-alabei irakatsi, ezta bilobei ere.

Egun baten, nerabezaroan nengoela horri buruz galdetu nion:

-Zer dela eta, amona?

-Animal berezi baten erruagatik izan zen.

-Zuk animaliei beti hitz egiten diezu euskaraz bada.

-Bai, ordea animalia honek bi hanka zeuzkan eta gainera, bere samalda oso handia zen. Gauza bat eduki behar duzu beti gogoan:

“Lau hanka dituzten animaliak ez dira arriskutsuenak, bi hanka dituztenak baizik”

Orain, aitona-amonak oso jakintsuak direla badakit. Esker mile amona.

*Juan Zugasti Munarri*

# Urtaro berria

Bazen behin Neguaren ordezkari bat. Egun batean herritaraino jaitsi zen berria komunikatzeko: aurten Negua ez zela etorri eta ez zela etorriko. Urtero, urtaroko jaunak Negua, Uda eta Udazkena Izaga mendian elkartzen ziren urtaro mugak adosteko. Urte horretan ezinezkoa izan zen akordio batera iristea. Azken saiakeran, Udaberriko emakumea agertu zen eta oihu batekin agindu zien isiltzeko. Neguko jaunaren begietara zuzen-zuzen begiratu zuenean esan zion:

-Badakit beroa gustatzen zaizula, baina Ama Lurra maite baduzu, Neguan ezingo duzu bero gehiago eskatu.

-Eta zu, Udako Jauna! Beroa jasaten aspertuta zaudela! Benetan pena merezi du aire girotua jartzea? Ama Lurrak nola ordainduko du?

-Nik ere nahi dut oporretara joan!.-Esan zuen Udazkenak zutik jartzerakoan.

-Gure eskuetan dago. Okertzen bagara, gure lekua betetzeko, etorriko da betiko urtaro berria, Epelberria- esan zuen Udaberriko Emakumeak hortik abiatu zenean...

Agoiako  
Bleko ikasleak

# AEKbirusa

Egun batean, ikasle talde bat, asteartero bezala, eskolara joan zen. Eskola bukatu zenean, denak etxera itzuli ziren eta... Bere etxean, ikasle bakoitzak nabaritu zuten astindu bat, PA! Orduan, Gonzaloren etxetik musika entzuten hasi zen, izan ere, denok batera elkarri hurbiltzeko. Bat-batean, baratzetik kolorez beteta, dantzatzen eta abesten pertsonaia agertu zen. Gezurra zirudien hainbeste alaitasuna!!

Magia zirudien baina orduantxe denak euskara ezin hobea mintzatzeko hasi ziren eta gaztelania ahaztu zuten.

Gero zonaldeko azoketan hazi mota berezia saltzen hasi ziren ikasleak, eta jendeak landatzen zituzten horiek bere baratzetan eta esertzen ziren itxoiten ea nola handitzen ziren, baina itxoin bitartean bere gorputz barruan zerbait arraroa edo berezia nabaritu zuten, hitz egiteko modua aldatzen ari zitzaiela, gero eta gehiago euskara erabiltzen zuten haziak erosi dituztenak.

Garraldako  
B2ko ikasleak

# Bizi koloretsua

Hiri txiki batean txakur berde bat bizi zen. Oso berezia zen. Berezia sentitzen zen beste animalien aurrean, besteek beste kolore batzuk zituztelako: zuria, gorria, beltza... Hiriaren beste puntan, beste animalia bat bizi zen, hau katu laranja zen. Bi horien arteko harreman oso txarra zen, katua eta txakurraren artekoa bezala. Hala ere, biek lagunak izateko beharra zeukaten eta esaera zahar alde batera utzi eta elkarrekin gauzak egiten hasi ziren. Iraultza!

Egun batean, biek amets egin zuten erloju baten barruan zeudela eta beste garai batera bidaiatzen zirela. Etorkizunera, alegia. Han gerezi asko aurkitu zituzten eta gose zirenez, berehala jan zituzten goxoak baitziren. Baina ez zekiten sorginduta zeudela. Bat-batean erlojua hondatu zen eta txirrinak jo zuen, berriro lanera.

Garraldako  
Azko ikasleak

# Lertxunak

Arratsalde horretan mendira joan ginen,  
Itsabalearraino. Han hamarretako jaten ari ginenean  
lertxun talde bat agertu zen. Haiekin euskaraz hitz  
egin genuen eta janaria banatu genuen. Eskerrak  
emateko hankekin hartu gintuzten eta zerura  
eraman gintuzten gure herria ikusteko. Ordutik,  
gure herriko kultura eta ohiturak mundu osoan  
ezagunak dira: txokolate jota, maskaridak eta  
kaskaboboak, kostrada, jaiak.....

Urrozko eta Agoziko  
Azko ikasleak

# Lamilosena putzua

Bazen behin, Ezkarozekeo herrian leku oso ospetsua. Horko jendeak izuzko istorioak kontatzen zituzten. Haietako bat kontatuko dizuet: Esaten da putzu horretan, "Lamilosena" deitutakoa, ur korronteak betidanik izan direla. 1889ko abuztuaren 20an, Martin Santpierre, Iparraldeko mutil bat, bere familiarekin igeri egitera joan zen.

Putzua kanpotik oso lasaia zirudien, baina barruan auskalo zer zegoen.

Martin ausartena zen eta uretara berehala sartu zen. Minutuak pasa ondoren, konturatu ziren Martin ez zela agertzen. Herriko jendearekin batera saiatu ziren Martin aurkitzen, baina ez zen inoiz bueltatu.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Milosena putzuan.

Zaraitzuko  
Azko ikasleak



# Mikroipuina

Negua iristen ari zen Alaskan eta Peter eta Jonek azkarrak izan behar ziren janaririk gabe geratu ez bazuten nahi. Auzokideak ziren, baina oso desberdinak ziren. Peter arduratsua zen. Jon, ordea, ez horrenbeste.

Altzeak ehizatzerara joan ziren eta bigarren asterako neguan bizirauteko haragi nahikoa zuten, baina Jonek gehiago nahi zuen.

Hurrengo asteetarako eguraldia txarra zetorren, baina Jonek jarraitzeko asmoa zuen.

Peter, aldiz, etxera itzuli zen. Jonek larruak saltzeko nahi zuen.

Hala ere, aste batzuk geroago, itsasontzi batek Jon etxera eraman zuen, ia arroparik gabe. Ibai batek arrastaka eraman zuen baina mirariz atera zen bizirik.

Aurizberriko  
Azko ikasleak

# Zu zeu izan!!

Bada baratze bat ibai baten ondoan. Tomateak ezin du ibaia ikusi horma bat dagoelako. Tomateak hazi nahi du, baina ez da gorri heltzen. Kuia da. Handia egin da eta orain hormaren gainetik ikusi ahal du. Kremak egiteko lantegi bat ikusten du. Berarekin krema egin dute, krema laranja da bai, baina tomate zaporea du.

urroz tarra



Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra